

DIRU ITURRIAK

Gure enpresako diru-iturri nagusia hainbat ikastetxerekin edota erakunde desberdinekin lortzen ditugun kontratu edo akordioetatik etorriko da. Gure zerbitzuak eskainiko dizkiegu, bi aldeak pozik uzteko moduko diru-kopuru baten truke. Plataforman eskainitako zerbitzu desberdinak ere monetizatzen saiatuko gara.

Gure zerbitzuak urtebetez erosteagatiko prezioa finkoa da, hau da, egoera oso espezifikoa edo egoera berezi batzuetan bakarrik aldatzen da (adibidez gaur egungo pandemiarekin gertatu dena, etab.). Bi epe desberdinetan ordaindu beharko da adostutako kantitatea, erdia hasieran eta erdia amaieran, enpresak diru sarrerak izan ditzan bizirauteko.

Kontratu horretan honako hau zehaztuko da:

- Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta ezingo da inola ere bertan ezarritakoa ezeztatu; hau da, behin kontratua sinatuta adostutakoa bete beharko da, beti ere bezeroaren egoera kontuan izanda.
- Kontratuak malguak izango dira; hau da, garrantzitsua iruditzen zaigu bezeroaren beharrak eta ezintasunak kontuan izatea, eta beraz urtean zehar kontaktua mantenduko dugu beraien berri izateko eta beharrezkoa bada, berriz negoziatzeko.

